

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko **bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek**, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **INTERPELAZIOA** egiten dio **Isabel Celaa Hezkuntza eta Ikerketa sailburuari** “*eskolabakegune* webgunearen inguruan dauden testigantzei buruz” kontroleko osoko bilkuran erantzun dezan:

ZIOA:

Azaroaren 17an *eskolabakegune* webgune berria eta bulego berria aurkeztu zituen Isabel Celaa Hezkuntza sailburuak, bere hitzetan, “Hiritartasunerako” ikasgaia garatzeko materialak eta testigantzak jasotzen dituena. Bertan biktima batzuen testigantza jasotzen da, ez propio horretarako eginak baizik eta lehendik publikatuak. Eta, gainera, nahasmena sortu da gai horren inguruan, Eusko Jaurlaritzak berak esan baitzuen eskoletara euren testigantza eramango zuten biktimak Jaurlaritzaren Biktimen zuzendaritzak aukeratuko zituela. Hori dela eta, hurrengo interpeleazioa egiten dio Hezkuntza sailburu Isabel Ceaalari:

INTERPELAZIOA:

Azal dezan zein irizpideren arabera aukeratu dituzten www.eskolabakegune.euskadi.net webgunean jarri dituzten biktimen testigantzak, eta ea horiek Biktimen Zuzendaritzak aukeratu behar zituenak.

Gasteizen, 2010eko azaroaren 22an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea